

NIKOLAS ALZOLA GEREDIAGA ZENAREN OROITZAPENEZ

JUAN SAN MARTIN

1982ko ekainaren 2an hil zen Irunen Nikolas Alzola Gerediaga adiskide eta lankidea, EGAN aldizkari hontako laguntzailerik kartsuenetakoa. Nikolas, izatez, Bizkaiko Izurtzan sortua zen 1922ko abenduaren 30ean. Mutikotatik agertu omen zuen elizgizon izateko bokazioa eta Frantziskotarren ordena hautatu zuen lehendabizi. Baina, Foruan ikastaroetan ari zela, latin ikasteko aurkitzen zituen oztopoengatik ordenaz aldatu zen, La Sallekoetara pasatuaz. Gainera, pedagojiarako doain bereziak zituenez, hor bilatu zuen gogoia betetzeko era.

Literaturaz gainera, bibliografiaz asko arduratu zen, eta baita bideak markatu ere aurkibideak lortzeko, ikertzaile eta jakinzaleak lan errazagoa izan zezaten. Lan tipiak itxura batean, baina funtsezkoak kulturgintzan. Adibidez, Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* (1960) liburuari izenen *Index* zehatz bat egin zion, 1969an *Boletin de la R. S. V. de los Amigos del Pais-en* argitaratu zuena (ikus Cuadernos 2.º y 3.º, 423-434 orrialdeak). Eta, hori, adibide bat baizik ezta Nikolas Alzolaren lan isil, ilun baina jakingarrizko diren horietan. Besteak beste, ezin bestekoa deritzat EGAN-i egin zion Arkibidea aipatzea, aldizkari honen erabilkerarako hain premiazkoa denez: 1957koa agertu zuen lehendabizi EGAN, 1958ko 1-2 zenbakiaren 111-118 orrialdeetan. Eta, gero, urte bereko 3-6 zenbakiaren 248-264 orrialdeetan, aurreragoko urteena, 1954, 1955 eta 1956. Lastima izan da

berak markatutako bide hori beste inork ez jarraitzea. Arkibideok egile izenez alfabetaren ordenan jarriak daude.

Horrez gainera, liburuaren sailean lan handia egin zuen Nikolasek, argitaratu berriak aipatuz edo komentatuz; bestalde zenbat ipui, olerki eta zertzelada ez zuen eman? Artistari buruz idatzituen lanak ere ez guti, eta hauen artean Gaspar Montes Iturrioziren eginak izango dira onenetakoak.

Nikolasek, gauzak patxada handiz egiten bazituen ere, kezkatia zen eta bere adiskide edo inguruko ezagunen lanak arduraz jarraitzen zituen.

Bere lanik gehienak izenordez argitaratzen zituen. Gehien bat, jokaera hori, bere izate apaletikakoa zuen; baina baita ere bere ordenaren aurrean, garai ilun haietan, kulturgintzan gehiegi ez nabarmentzearen. Inolazko konpromisorik agertzen ez zuen artean lanean jarrai zezakean, baina bestela nork zekien... zer? Ez zen alperrik ber-berak izendatu zuen «Katakunbetako gizaldikoa».

«Markue» izenordez eman zion hasiera «Kantuz eta Itxaropenez» zeritzan olerki sailari 1966 EGAN-en, eta era hortako bertso librean agertuko zituen seguru asko bere olerkirik hobeenak. Gizarteko aldaketak kezkatu, bide berrietan laguntzeko bere etorrizko urratsak eman nahi zituen:

*Amaika mila
arantzagaz
dakarzu
zaurituta
biotza.*

*Ainbeste oiñaze artu dauben
zoritarrezko biotz orrentzat
ez ete-da
egongo
bakea ta egotaroa
egunen
batean?*

*Danok
alkar
parkatu*

eta
areriorik eztagoan
tokira
egaz egiteko naia:

beste
asmorik
eztakazula
esan
deustazu.

Norekin ziharduen une hortan? Ez dut uste pertsona konkretu batekin ziharduenik, baina bai pertsona bidetzat hartuz gure gizarte egoeraz kezkatu eta larriturik. Gizona gizonagatik sufrituz ikusten zuen eta anaitasunerako deiaz baretu nahi zituen gure ezbeharrak. Halakoa zen gure Nikolas, beti guzietan on egin nahirik, laguntza eman nahirik

Sufritu ere egingo zuen bere barne gogoan, baina gauzak pazientzia handiz hartzen zekiena zen, gertakizun guzien gainetik erlijiozko fede sendoak bere izatea betetzen zuenez. Lagun urkoarentzako errespetua eta maitasuna, neurkaitzak ziren Nikolasen baitan. Izan ere, bere kontseilu honak nork ez ditugu izan lagungarri? Beraz, ezta harritzekoa bere heriotzak hainbeste bihotz tristuraz jartzea.

Gure bizitza laster hontan nekez oroitzen gara lagun on baten balioaz. Lagun on bat heriotzak daroanean bururatzen zaizkigun oroitzapenezko gogoeta guziak samurtzen dute gure bihotza. Askotan norberekiko gogoetatik haruntza ez doaz, baina bizi garen gizarte hontarako, norbere laguna izatez gainera bestelako garrantzirik baldin badu, ezin isil egon. Askozaz gutiago lagunaz gainera herri baten kulturgintzan bere bizitzaren ordurik gehienak eman dituen gizona baldin bada, eta hala zen, Irundik heldu zitzaigun berri beltzak zekarren izenekoa: Nikolas Alzola Gerediaga (La Salletarretan Anai Balentin Berriotxo bezala ezagutzen zena).

Bai, bera fisikoki mugitu zen gizartearen inguruan bi izen horiekin oso ezaguna zen; ezaguna irakaskintzan eta ezaguna euskal kulturaren, baina ezagunagoa ontasunaren eredu norbait izendatu behar zenean. Nik, pertsona onak asko ezagutu ditut, baina ontasunean eta zintzotasunean inor ere ez Nikolas haina-

korik. Izan ere, Nikolas, katolikoek santutasunez eman izan duten irudiaren erakoa zen bere izakeraz. Pertsona ona eta beste edonorren parte ona soilik ikusten zekiena eta beti nornahiri laguntzeko gertu. Hark bezala ikasiko bagenu lagun urkoa maitatzen, gure gizarteak zori hobea izango luke. Holakoa zenez, berakin harremana izan duten guziak maite zuten Nikolas.

Nikolasek apaltasunez egiten zituen bere lanak. Apala zelako, idazlanik gehienak izenordeekin ematen zituen Euskal Herriko kultur aldizkarietan. Ba ote aldizkaririk bere lanen bat agertu ez duenik? Ezetz esango nuke. Bere *Atalak* zeritzan liburuari egin nion hitzaurre hartan nion bezala, gure Nikolas Alzola Gerediaga, Anai Balentiñ Berriotxo, N. de Cortázar, Bitaño, Markue, Ozerin-Jauregi, Alzarte, Dolometa, Oxiñondoko Txoria, V. del Parral edo denadelakoa, ez da erreza izanez eta izenez mugatzea. Bere idazlangintzaz eman duenaz zerbait jakin nahi badugu, ikus Jon Bilbaoren *Eusko Bibliographia*-ren lehen tomoko 132-134 orrialdeak eta bereziki VIII. tomoko 433-438 orr. Baina, ez uste hor bertan ere guzia jasoa dagoenik.

Liburuak ere, sei liburu argitaratuak zituen, eta zazpigarren bat inprimategian. Hauetan ere izenordeak erabiltzeagatik edo, bere heriotzari buruz egunkarietan idatzi dutenek, ez dute eman bere liburu guzien berririk. Gazteleraz idatzia eta N. de Cortázar izenordearekin *Cien autores vascos* argitaratu zuen 1966an. Euskaraz idatzi zituen liburuak ordea, Bitaño izenordez, honako hauek dira: *Atalak* (1967), *Bigarren atalak* (1972), *Hirugarren atalak* (1978), *Ipuinak* (1978) eta *Ipuinak - II* (1980). Eta, esan bezala, *Ipuinak - III* inprimategian, laster argitaratzekotan. Lehen liburuak ehun egileen bizitza eta lanen berriak aurkezten ditu; euskarazko *Atalak* sailekoetan ordea: elezahar, kontu berri, pasaiuak (gertaerak), saio-oharrak, olerkiak, egileen xehetasunak, jakintza oharrak eta abar. Lehen biak bizkaieraz eta hirugarrena euskara batuan. *Ipuinak* sailean, haur eta nagusientzako ipuiez gainera zenbait kondaira egokitu biltzen ditu.

Bigarren ipui liburuari egin nion hitzaurrean adierazi nuen bezala, lanok, aurpegi ona erakutsiz bizitzaren filosofian, nekealdietan kantaz eta itxaropenez atsedena hartuz aritu zen. Luma ez bazen, pintzelak eskuan, letraz adierazi ezina «fauve» eskolak eskaini zituen kolore eta estiloaren aukeraz. Zeren, gutik dakite gure artean Nikolas pintorea ere bazela, eta ez nola nahikoa, berak uste zuen baino hobea baizik. M. Madariagare-

kin egin zituen bere arte ikastaroak, geroago bere baitarik onduko zituenak. Akuarelagile ona zen, arte berezi honek eskatzen duen teknika egoki benderatuaz. Atsedean orduetan pintatzen zuen, bere barnearen lasaitasunerako lagungarri iduritzen zitzaiolako. Hala aitortu zidan behin batean. Gainera, bere obrekin sari bat jarri zuen Durangoko Liburu Azokan, urtero, euskal kulturaren nortasuna zuen idazleren bati lauki bat eskainiz.

Bere lana ugaria delarik ere, horrez gainera landu zuen beste alor bat ere: gutunak. Berak, laguneri eta harat honat galdereri erantzunez egin zituen milaka eta milaka gutunak bildu ahal balira, euskal kulturarentzat gordailu ederra lortuko genuke. Izan ere, nork ez zion eskatu Nikolasi historiaz, literatuaz, pertsonaz, leinuz edo beste zenbait gaiez agiri edo oharren bat? Nikolas, beti prest bere memorian gordetzen zuenaren berri emateko, eta bere memoria hondo gabea zen, eta bere borondate onak ere ez mugarik. Horregatik, milaka eta milaka gutunak idatzi zituen handik eta hemendik eskatzen zitzaizkion datoak emanaz. Ni neu berandu hasi nintzen gutunok gordetzen, baina nere gordailuan ditudanak bildurik emango ditut Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekarako, agiri baliagarri asko daudenez (1).

Bere literatur eraz edo estiloaz zer esan? Beretzako idazlerik atsegina Pio Baroja zela esatez aski litzake. Asko esan nahi du horrek Nikolasen alde. Aspalditik, Durangaldeko ikastola eta alfabetatze ekintzetan irakurgaitzat bere liburuak erabili dira. Bere «fauve» pintura bezalako bizitasuna dute irudiz eta giroz, ipuingintzaren alorra landuz, berbiztu zituen haur eta gazte-txoen irudimenak, berbiztu zuen supazterreko oroitza zaharren baitan, sortu zituen ikuspegi ederrak, piztu pertsonaia berriak... beti gogo bera iraunaraziz, kantuz, bakez eta itxaropenez bere-baitako sorkunde aberatsetik.

Atsedena irabazia zuen hainbeste lan egin duenak. Ontasuna predikatuz eta exenplu onak erakutsiz igaro zuen munduko bizitza. Geroan ezer bada eta ezer hortan betirako zorientasunik inori ematen bazaio, gure Nikolas zena han izango da, inor izatekotan.

(1) Horien artean, besteak beste: 1966-an *Egan*-en argitaratu zituen «Kantuz eta Itxaropenez» poemen gaztelarazko itzulpena. 1966-an «Euskaltzaindiari eskari bat» deritzan txosten labur argitara gabea. Eta, Durangoko Liburu Azoka idekitzean, 1973. urtean, eman zuen hitzaldiaren kopia, Durangaldeko idazleei buruz.

Guretako penagarria izan da holako lagun on bat galdu beharra. Penagarriagoa oraindik intelektu lanetarako adinik egokien sartzear bat heriotzak eroatea. Erudizio handiko gizona zen Nikolas, buruko almazena ondo hornitua zuen eta gure kultura ahularen alde dena hustu gabe joan beharra, tamalezkoa benetan.

Behin beregan hartzen zituen lanak ere urteak zehar jarraitzen zekien. Aurten bertan Bizenta Mogeli buruz Azkoitian ospatu ditugun jardunaldiak zirela-ta, herri hontako kultur elkar-tekoek, Nikolasek hogeitahiru urte zituenean bertako alkateari egin zion gutunaren kopia bat eman ziguten (2), Bilbotik 1945eko abenduaren 18an idatzia da, Ignazio Iriarte XVII. mendeko pintatzailearen berririk zuten galdezka, bere zuzendaritzapean laster irtetzekotan zen *El Arte* aldizkarirako lan bat burutu nahi zuela-ta. Ez dakigu erantzunik izan zuen ere. Dena dela, anitz urte igaro ondorean ere jarraitzen zuen Murillo maisu eta adiskide izan zuen azkoitiar artistaren gaia. Hara nola, *Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País* (1975, 571-572 orr.) Azkoitiko Iriartez argitaratu zuen oharra, J. A. Gaya Nuño-k aurkitu edo adierazi zuen lauki bati buruz. Ohar hortan, Iriarteren obrak, Pradoko Museoaz aparte, Leningradoko Ermitage, Bilbon bertan, Sevillako Alcazar errege-etxean, Loiolako San Ignazioren erretratua, Viñazak dionez, ba omen dira. Iriarte pintoreari buruzko bibliografia ere ugaria omen da. Berak, nonbait, ezagutuko zuen noski, baina gure bibliografia lanetan, Jon Bilbaorena bera ere barne dela, urri da. Beraz, iturrien adibideak Nikolasekin joan dira.

Osasunez aspalditik zebilen makalik. Duela zenbait urte hasi zen bronkioetatik, gero diabetes agertu zitzaion eta azkenik bihotzekoa. Hil baino hilabeteren bat lehenago bisitatu nuen eta itxura txarra iduritu bazitzaidan ere, bere gogoia kementsu zuen eta uste nuen gehiago iraugo zuela. Bere lanerako gogoaz zer esanik ere ez. Hil aurreko egunean bertan igorri zidan Piarres Lafitteren omenezko libururako lan bat, *Iker-2* osatuko

(2) Aipatzen den gutun kopia hau ere, nere gordailuan aurkitu ditudan paperekin batean doa Azkue Bibliotekarako.

duenerako. Nonbait, une hortan, heriotza hurbil ikusten zuen, igorriaz idatzi zidan gutun laburretik ikus daitekenez:

1982. VI. 1

*Juanito: Piarres Lafitteren omenaldirako.
Makalik nabil eta ezin dut gehiago
idatzi.*

N. Alzola G.

Behar bada, edo kasik seguru, ohar hau izango zen milakak gutunak idatzi zituenaren azkena.

Lizentziatura burutzeko tesigintzarako edo, bere lepora ekin-tza hartu nahi duenarentzat, material ederrik eta ugaririk utzi digu Nikolas Alzola zenak.

Arte aldetik, kontuan artzekoa da bere lana. «Fauve» joera-ko akuarela-gintza egin zuen, aski puntilista, dibujoaren ritmoa ondo eroanaz. Paisaje argiak, alaiak eta anekdotikoak. Dibujo hutsak ere oso onak, batez ere zuhaitzak beren mugimendu urduriak egiten zituenean. La Gran Enciclopedia Vasca argitale-txeak, bere Pintores y Escultores Vascos... sailean ale bat eskaini zion.

Ber-beraren hitzak ziren honako hauek: *Kultura zaharrak bide berriaz aurrerantz' eroango gaitu*. Bai. Baina guk egun la-gun bat gutiago bidean. Goian bego.

Eibar.

1982. Ekaina.